

OLABIDE'K APAIZEI EKARRITAKO LAGUNTZA

Larrañoetxea'tar Bedita'k.

« ...Gizon on eta esaten dakiana, esaten terbe ta antzetsu dana » ei dok izlari. Bai, onan irakatsi yeuskuen, oker ezpa' naiagok, apaizgaitegian. Bapo ! Lenen, on. Bai ba, eta izan be, zetara oa itzalditegira ? Eure burua erakusten, dururundua ateraten, txaloak irabazten ? Ez, ori elizatekek ire egikizun. Ni emen artzai nok, eta nire ardiak yagon eta curai yaten emon bear yautset, bat bera be galdu ez dakidan... Nire ardien yanari egia dok, eta ez edozein egi be, goitik iragarriko egia baño. Ni nere artaldetxo onentzako Kisto'ren ordeko nok-eta, al dodan giñoan Aren antzeko izan bear yoat, ni otsotzat artuta ardiak, begiak larri dabezela, nigandik alde egin eta bildurraren bildurrez itsuturik zulo, leza ta torketara yausi ta il ez daitezan.

Kisto'k esana dok : « Ni naz bidea, egia ta bizia ». Orrezkero, bide-billa, egi-billa, bizi-billa Kisto'gana yo bear nik. Kisto'gandiko bidea, egia ta bizia zer dirian ikasten or ibili naz urteotan apaizgaitegian, eta ori alaso ikasi dot. Orain nire arloa ez da ikastea, irakastea baño ; eta ori nire ardi ta bildotsai egin bear dautset, nire egikizuna beteko ba'dot eta banakari on izan gura ba'dot, ostean nire epai-eguna gitxien usteko egunez datorkikedanean zer entzun bearko dodan ba-dakit-eta.

Nire ardiak zerbait dakienak dira ; ba-dakie bedar txarrak, bedar edentsuak osasungarri dirianetatik berezten, nozik-bein, orretara leiaitsuak eraginda, ur geldi-ertzetan kokalda-bedar guri-goza agokadaka yanarren be. Nire ardiai igande ta yai-egunez meza-bitartean irakatsiko dautset, argi ta labur, eta bai maitasunez be. Zer egingo bildotsakaz ? Amak bere seintxoagaz egin daroana bera egin bearko. Seintxoak ez dau oraindik aginik yaki gogorrik zeatzeko, ta urdallea be oraindik makalik

asko dau yaki batzuk austeko. Orrezkero, asuriai, umeai yaki bereziak, ze-ze eginda ta eurei banazean emon bearko.

Aiko amen nire irakaste-arloa, baña ez da au nire arlo ba-karra. Or dodaz gexoak nik zaintzeko, zerura-bidean yarteko, geroko itxaropen gozoz euren biotz larri-estuak nasaitzeko. Nire artaldean bildots barriak yaio-ala, eurak Kisto'ren artalderatu ta artaldearen atza, ezaugarria ezarri bear dautset, Bere aurrera eldu daitezanean Kisto'k Beretzat ezagutu al dagizan.

« Azi, geitu, ugaldtu ta bete lurgana »... « Autsez egina az eta auts egingo az »... Nire ardurarik andienak gora-bera nire ardiak gitxituaz lioakez, beste bidez ezik zarren-zarrez il egingo litzakidaz-ta ; artaldea barriztatzeko bideak be artu bear ; aor ezkontza ; gizon eta emakumeren arteko batasuna ; gogo-batasuna, soin-batasuna ; Kisto ta Elexaren arteko batasunaren antzirudia ; gizadia ugaltzeko Yaungoikoak berak asmauko bidea.

Ba-yagok, mutil, emen zereginik, ba-yagok emen zeri eldu. Laster dok igandea, ta nire ardi ta bildotsen aurrean agertu bearko yoat eta eurei txera argi egin ; nire itzak ondo neurtuak, egoki-egokiak izan bear yoek, nigana nire ardi-bildotsak bildur-ge, biotza zabalik erdu daitezana. Nire itzaldi au, lenengoa da-nezkero idatzi ta buruz ikasi bearko yoat, bear ez danik esan ez dagidan... Tiruk, ba, gaulendian elduko yautsat lanari, bein-beinean astirik ez yoat-eta...

Gure yaupari gazte Altzibar'tar Yon ausnarketotan murgil-durik dagoalarik, iluntzeko yoaleak yo dau erriko yoale-torrean eta, errian ekandu danez, elexara yoan bear dau « agurtzea » esaten. Negu da, giro txar da, otz da ; arrastian euri ta txingor-zaparradak izan dira ; ortzea ilun da ta odei baltz-lodiak estal-tzen dabe, il-yantziz bai'litzan ; eguerdi-ostean itxas-antzarrak erreskadaka ta irrintzeka igaro dira iparraldetik egoalderantza ta, zarrak diñoenez, egaztiok odeiak zear irrintzeka doazanean edurtea ur da. Bein-beinean aterri da ta gure yaupari gaztea, bada-ezpada txartesa sorbalda-ganera egotzita, elexarako bidean

yarten da ; elexea ez dago yaupaletxetik urrin, biak alkarri deusela eginak baitira. Elexan ez da yentetzarik : bostosei atso, beste ainbestetsu mutiko-neskato ta agure zarren bat edo beste. Zarrak eleiz-barruan dira dagoneko, mau-mauka otoitzari daragoioela; mutiko-neskatoak eleizpean, yolasean eta sur otzez gorrituetatik dindirria dariela. Yauparia urreratu-ala, mutiko-neskatoak yolasa itxi, txapela erantzi ta yaupariari iluntze on esan dautsoe irribarreka. Yon yaupariak banan-banan euren bizkarrean bere esku sendoa ezarri ta irribarreka berak be iluntze on esaten dautse.

Yaupariaren yarrai neskato-mutikoak elexara sartzen dira « agurtzea » esateko. Mutiko-neskatoak urduri ta arin erantzuten dautsoe yaupariari : erantzunai eldu be yaupariak berak esatekoa amaitu baño len ; mutikoak euren amaitu dabenean, atsoak oraindik ozta-ozta dira bide-erdian, agurak, barriz, bide-laurenean edo or orren baten. Ez-bardin doa, beraz, agurtzea. Mutikoak atsoai ta alan be agure geldoai egiten dautsezan begirakuneena ! Mutikoak otoitza arin egin gurako leukie, yolasari barrien-barri ekiteko, naiz sutondoko epeletara yoateko, baño agure-atsoen geldo !

Agurtzea amaitu-ordukoxeko ostots durundutsuak eta oñaztu itsukorrek zearkatzen dabe ortze iluna ta edur da zara-zara ; edur-matasak lora-orritxo zuriak bai'lira datoz sarri ta astiro lurrera. Mutiko-neskatoen poza ! Eskuak otzik eta surrak dindirria dariela izanarren, oio ta santzoka doaz bakotxa berera. Yon yauparia bera be ez da beroegi, ta elexatik urtekeran berakin trikitx egin dauen atsotxoari gau on esanda, berera doa bizkor-bizkor.

Txartesa erantzi, bere idaztitegitik « Catechismus Concilii Tridentini » artuta, sutondora doa, datorren iganderako gaia billatu, irakurri ta ausnartzeko asmoz. Idaztitik begiak eragi ta surtako ilinti batzuk aurreratzen dauz, suak bero larrik emoten ezpaitau. Ate-ots ! daunba-daunba ! Nor ote onango gabaroaz yaupari-etxeko atetan deiez ? An doa Yon'en ama, emakume

maratza, atetara ta bertatik dator bere seme yaupariaren billa. — I, seme, Egillaur'tik Elexakoen eske yatozak. Onango garroz urten bear ! Edurra dok erruki barik, eta Egillaur urrin urrin yagok ; yaupari-yantzia garrian estu bearko dok, maskalez ondatu ez dakikan eta txartesa egotzi bearko dok sorbalde-tara. Yantzi egizak oski nausiak eta parka-barrenak oskien ganean estu egizak oñetara edurrik sartu ez dakikan. Abil bidean arduraz, yauskera txarren bat eginda minik artu ez dagikan. — Bada-ezpada, ez egon nire begira apaltzeko, ama ; yon zu oera tertzioan, ba-leiteke nik gau osca an egin-bearra-ta. Gau on, ama, ta ondo lo egin. Ez izan nire ardurarik.

Egillaur basetxetik datoz iraduz yaupari-billa. Yon Egillaur'go, gizon gaztea, il-aginik ei dago ta auzoko Anton dator yaupari-billa eskuetan leiar-barruko argi motel, ipurtargi-antzeko dauela ; ganean txartesa dakar eta buru-estalkitzat txapela ta txartesaren txotinoa, oñetan abarkak eta zangoetan mantar lodiak artillezko lokarri baltzez txairo estuta. Bere semea urte-teko gertau arte, Yon'en amak yaupari-eske datorren Anton sutondoan epeletan yarten dau.

Apaltzeko asti barik eta sutondo gozoa itxita, amak emoneko burubideak zeatz beteta, an doa Yon yaupari gaztea yaurettxera gure Yauna ta Orio onetsien billa. Beingoan da osterabe yaupari-etxean, eta eskuetan makil sendoa artu ta Anton bide-lagun eta argi-mutiltzat daularik an doa Egillaur'erantza, gure Yauna-ganako lotsaren biderik geienez ixilik eta nozik-bein otoi-marmarka.

Laño itsu da, edurra zara-zara dator lurrera ta bai gure bideztion ganera be ; noizean bein euren txartesak azlindubearrean aurkitzen dira ; ganeko edurra aztun egiten yake-ta ; ostots eta oñaztuak, sarri-sarri, baña ostotsen otsa motel dator, edurrak erdi-iruntsita ; zugatzak edurpean euren adarrak makur dabez, geroago makurrago ta batzuk ausi be egin dira ; gure bidariak eldu dira Belen'era ; orain aldatz bizia dabe euren aurrean ; oñen azpian edurrak men egiten dau ta geroago bar-

rurago sartzen dira ; aurrendaria nekatzen danean, atzekoa yarten da aurrendari, orain edurra zapaldu ezeze, ebagi be egin bear dabe-ta. Ez da eguraldia sargori, baña gure gizonok ez dabe otzik, ez orixe : nekearen nekez izerdi-bitsetan doaz aldazta gora. Eldu dira Angoti'ko lau-unetxora ; aldatzik gogorrena egin dabe, baña oraindik Egillaur an goragoan dago, menditontorraren azpiko lau-unetxoan kokatuta...

Eldu dira noizbaiten. Gexo larriaren etzangora zuzen, aurreztik edurrez estaliriko txartesak etzeko bebarruan erantzita... « Bakea etxe oneri ta etxe onetako guztiai », diño Yon yaupariak, eta gexoaren etzangoa ta gexoa bera ur onetsiz txipiriztinduta, gexo larriaren oe-aldamenera doa astirik galtzeke. Gexoa estularri datza arnasarik artu-ezinik eta iñon arterik artu-ezinik. Erriko osagilleak etsita itxi dau, ta bere egikizuna amaitu dala-ta, yaupariri len-baño-len ots egiteko esan dautse etxe-koai.

Yon yaupariak bidean ixilik datorrela astirik asko izan dau gexoari zer egin eta zer esan bear dautsan oldoztuteko... « Emen yagok nire artaldeko ardi bat otso gosearen agin-erpetan yaus-teko zori larrian. Zer egingo ? Yagon arduraz. Ezetara be eztoz galdu bear ardi au, egundo otsok ukutuko eztautson Kisto'ren goiko artalderatu baño. Bein Ak artuezkero, nik ez dot onen ardurarik, baña nire artaldeko dan artean bai. » Onangoxe oi dozpenak zearkatu dabe Yon yaupariaren burua bidean yoan doala.

Yosu-Kisto'ren soñez bazkatu dau Yon yaupariak Yon gexoa, aurreztik aren kezkek entzun eta aren gogoa azkespen-itzez bake gozotan yarrita. « Ogi au yan dagiana betiko biziko da. Nire aragia yan eta nire odola edan dagiana Nigan biziko da, ta Ni agan. » Azkenez, Azken-igortza ezarten dautso Orio onetsiaz. Gexoa il ba'dadi, emazte gaztea alargun eta semetxo bi itxiko dauz ludi onetan Yaungoikoaren eskuetan.

Yon yaupariak egin dau bere egikizuna, baña gexoaren

etxeakoak yauparia an euki gura dabe, gexoak azkenengoz a-
nasa artu arte-ta, an gelditzeko eskatzen dautsoe, gabaroa be
biderako baño legor epelean egoteko ohea dala-ta. Etzandera
zar maratzak bereala gertauko dau yaupariarentzako aparti-iskia.
Suiteko aga kedarrez baltzituetatik dingilizka agiri dira txiztor
gorrizkak, txarri-solomo onduak, urdai-azpiko gatzez zurizkak,
eta ganbarako gari-kutxetan gaztae zar ondugozaok ; laba-sua
be egin-barri da ta azpilan dagoz tremes, pamitxa, ogi, arto ta
yaike zapalak ; laratzuko kakotik dingilizka dago supuruan mas-
killua bei-esne zuriz beterik noz irakin eta gora egingo begira ;
gaztañak be danbolinean erreta dagoz, gaztaña-gorringo gozoak
egiteko.

Etzandera zarrak aparia gertatzen dauen artean, Yon yau-
paria gexoaren aldamenean, artzai onari dagokionez...
« Bizitz ! Zer augu i ? Azana azala, on augu, maitagarri
augu, izate a augu. Nok emon indugun ? Zetarako ?
Maite augu, baño zelangoa azan ikusi - ordukoxe, maiteen
augunean egin - eginen be orduantxe kentzen augu nor-
baitek. Zelangoa dan ikusi eztauen umek ez dau eztiaren leia-
rik, baño emon egiozu zelangoa dan ikusi dagian, eta ikusi-ala
ezpanetatik kendu egiozu, ta or dozu umea negar baten. Zer
da gure bizitzea orrako ume orren ezti baño ?... Eriotz ! Zer
augu i ? Lapurrik gorrotagarriena, maiteen dogun zera indarrez
eta erruki barik kentzen dauskuk-eta... Zegaitik ez bizi betiko ?
Norbaitek esan yok : « Eriotz ori ! ire oroipenaren mingots ! »
Abere-piztiak ez dabe eriotzearen oroipenik, gizonak bai. Orre-
xegaitik, gizona bizi dan artean be ilten dago. Orrezkero, zer
bizien artean gizona zori txarrekoen. Zer dok au ? Norbaiten
yolaskizun ete gara ? Nor orren biozbako ? Izan ete leiteke
olangorik ?... Oldozkunon baltz ! Ames uts ete gure bizitza ?...
Ez, gizon, ez adi murgildu oxin baltz orretan ; ire itxaropenak
ez dozak orren utsean gelditzekoak. Benetan, bizitzea ezkutuki
dok, baño ire gogobegiak gorago eragi egizak. Begira egizak
Egillearen eta eginiko oro eskutik darabilenaren goragoko as-
moa, asmoen asmoa, ta orrezkero gauzak bestera ikusiko dozak.
Ez adi kikildu, gizon, gora ire gogo-biotzak ; ik irrikitutxo

zear ikusten dozak gauzak ; itzuli ta lurreratu egik ire begien aurreko orma iluna, aurrean dokan ikuskizun zoragarria ikusi al dagikan ; murgildu adi zerutiko argi liluragarritan. Bizitza maite dok ? Izan adi zuzen, zuzenak beti-beti biziko dozak-eta. Bai, baña gure ostean biziko diranen gogo-biotzetan bakarrik, ala eurenez ? Bietara, ta areago be bai, Egillearen eta Saritzallearen biotzean be bai. Zegaitik il zoan Il- ezina ? Egin-eginean be i betiko bizitzeko. « Ez dau begik ikusi, belarrik entzun, ezta gizonen biotzek somatu Yaungoikoak Bera maite dauenentzat gertau dauenik. »

Oldozpenotan murgildurik dagola, Egillaur'go etzandera zarrak Yon yaupariari aparia gertu dagoala-ta mairako dei egiten dautso. Bitartean, gexoa yagoten bere emaztea gelditzen da.

Apal-ostean, eta gexoa geroago larriago aurkitzen dala ikusirik, Yon yaupariak, umeak ez beste etxeko guztiak baranoan dauzala, gexoaren gogoa Yaungoikoari eskeintzen dautso, gexoaren emaztearen zotin eta negarren artean... « Alde egizu ludi onetatik, kistar, egin zaitun Aita Yaungoiko guztizaltsuaren izenean ; gugaitik nekeak eroan ebazan Yosú-Kisto, Yaungoiko biziaren Semearen izenean... » « Gaur zure egoitza bakean izango al dozu, ta Sion donean zure etxea... »

Gaberdi-ostetxoan betiko agur egin dautso ludi oneri Egillaur'go gizon gazteak ; begiak itxi dautsoez eta okotza buruari lotu, gorpua ago-zabalik gelditu ez daiten...

Altzibar'tar Yon gure txauburua, gizon gazte, luzanga, bal-tzeran, bepuru-sendo, begi-baltz, zantsu, gordin, sur-arte, ezpan-me, artez, gogargi ta txeratsú da. Ogei ta zortzi bat urte dauzala emoten dau. Astea aurrera doa, igandea geroago urrago da ta iganderako itzaldia gertatzen astordu da. Mai-ganean dauz « Catechismus Concilii Tridentini », Idazti Deuna ta beste idazti batzuk, guztiak lateraz naiz beste erderaz, alerik be ez euzkeraz, ez berak euzkereari iguin dautsalako, euzkerazkorik ez dagolako baño. Itzaldirako gaia arako « Catechismus »-etik

artuko dau, arira datozan txatalak Idazteunetik artuta. Yauparigaitegian ez dautsoe irakatsi ezetariko euzkerarik; ez askorik, ez gitxirik; euskereak ez dau ez lateraren ez beste Yon'ek dakizan izkuntzen antzik bere yoskeran eta, orragaitik, izkuntza orreitatik euzkerarako bidea latz egiten yako; baña latz naiz bigun, bide ori urratu bear-eta, or dabil gure yaupari gaztea indarka ta iñondiko aleginetan bere itzaldia txaukun eta txairo egiteko. Eta izan be, erriari aituzoteko, bere erara, berak egiten dauen eraz itz egin bear yako, ta a ta guzti be erriak lanik asko gure uzkurtzako gai sakonak ulertzeko. Bein baño geiagotan aurkitzen da gure Yon ona istillu gorrietan zer batzuk euzkeraz esateko. Ez dau iñoren laguntzarik, ez euzkerazko idaztirik, eta berak amaren altzo ta magaletan ikasiko euzkerrea bera be yauparigaitegian erdi-aiztu egin yako; or dabil buruari azka ta asma-asmaka, baña eragozpen eta oztopo andiak idoroten dauz lan bikainik egiteko. Gizonak izlari izateko terbe izan bear ei yok-diño bere kitean — baña ni zelan izango nok terbe, bein-beinean beintzat, nire izkuntzea be ez ba'yakiat ?

Aperturirik andienagaz daragoio gure Yon'ek bere itzaldia onduten, eta eguen gaberako alasoko itzalditxoia ondu dau. Orain buruz ikasi gura, errian sarrerako itzaldia dau-ta. Emen aurrean dodazan idaztiok euzkeraz al legoz ! — diño gure yaupari zoli-gazteak — olangorik ez dogulako, lan gogor-gogaikarri onetan ibili bear astean-astean, eta sarritan onenbeste lan egiteko astirik ez ! Agertuko al da nozbaiten gaiok euzkeraz gertautau emongo dauskuzan gizonen bat !

I, Yon, ik ez egik aiztu arako « gizon on » . Ez, eta izan be, ni neu on izan ez ba'nadi, ni neu asarrekor, latz, alper, nagi, diruzale, zimur, arro, izan ba'nadi, zelan azartuko naz iñori otzan, bare, bigun, leun, zoli, eragin, esku-zabal, errukior eta apal izateko irakasten ? Adi i eu on, eta ori izango dok ik egin dagikean itz-aldirik onena, ostean iri be arako « osagille, lenen eure burua osatu egik » esango dauske, ta zuzenez esango be, ire eleiztarrak... « Esaten dakiana, esaten terbe-antzetsua »... Bai, au be baztartu bear ez dana dok. Ez dok bardin gauzak

edozelan, trakets, ganora barik, eta egoki esatea. Adi egoki .
Yosu'k berak emoten dauk onetan ikaspide ezin-obeia ; erri
lauarentzako, izan adi lau ; ez adi ibili ire burua, ire yakituri-
txoa erakuts-gurarik ; i baño yakintsuago zoan Yaungoiko-Seme
gizondua, ta orraitño aren itzaldiak etzoazan bape arroak, apal
eta lauak baño. Ak bere esatekoak, erriak obeto ta errezago
ulertzeko, irudi ta ipuñetan sartzen yoazan. Ik bere ire eleiztarrai
olantsu irakatsi bear dautsek. Ez adi izan itz-dario ta ameskeri-
zale, Gogo-gaietan, gogo-arloan ire eleiztar guztiak dozak ume.
Zer sinistu, zer egin, zer artu ta zer eskatu bear daben al da-
nik eta argien, laburren eta zeatzen irakatsi bear dautsek. Bein
ez egik aitzu artzai onaren egikizunik beinena Kisto aldarrika-
tzea dala ; ez egiek Kisto irakatsi bakarrik egin, erakutsi be
egiek, maite dagien, Bera dok maitagarrien-da. Ire itzaldietan
ez adi izan luze ta gogaikarri ; ez egik euki ire eleiztarrik arrau-
sika ta ire itzaldiari luze eretxita ; yakirik gozoena be geiegi
yanezkero, iguingarri egiten dok ; ez egiok iñori gorakarrik era-
gin. Egi berbera gogozago artu, iruntsi ta ausiko yoek ondo
yantzita, ondo adabauta emon ba'dagiek, eta orixe dok egin-
eginean be arako « esaten terbe, antzetsu izatea ».

Ondu ta buruz ikasi dau gure Altzibar'ek bere itzaldia ; eldu
da igandea be, ta an doa gure txauburu gaztea itzalditegiaren
mallak gora, astiro, apal, begi-argi ta txeratsu. Lotsa ta begi-
mune andiz « Aitearen » eginda, euren aita maitakor bai'litzan,
erriari agur txeratsu egiten dautsa ta, orrezkero, itzaldiari eldu.
Erri osoa adi-adi dagoko ; eztul bat bez eleiz-barrenean ; yeza-
rrita dagozanak yarlekuen aurreko ertzerantza eragiten dautse
euren atzeai ; batzuek eta besteak begiak yosi-yosirik dabez
euren abade barriagan eta belarriak artezturik ; ez dira oartzen
non dirian be... Gitxien uste dabenean gure Yon yaupariak itzal-
dia amaitu ta, bere eleiztarrai buru-makurketaz txera argia egi-
naz, itzalditegiko zurubi-mallak berako bidea artzen dau, astiro
yatsi ta yaupera amaitzeko...

Yaupera amaitu da, ta Altzibar yaupari gaztea, eskerrak
egin da bere etxerantza doala, elexan gelditu diran emakume

banakak, euren buruak al danik eta gitxien zearkaturik, euren txauburu barria begiraten dabe, euren semerik lerdenen, txai-roen eta maitagarrien bai'litzan; eleizpean gizonak be euren txauburu barriarentzako gorapen utsa dira. Patxo Kirten'ek akatsen bat edo beste ezarri gura izan dautsa, ez gaizto dalako, kirten dalako baño, baño bere aurreko ta aldamenetakoak laster ixildu dabe, euren begirakune ta berba latzakaz.

Geroago arandangira sartu dira batzuk, baserri-bidea artu-aurretik ezarriak apurbana bustiteko asmoz, eta an be gizonak itz-gai berbera erabili dabe. « Gure abade barriak gaur autsak atera yauskuzak; onango abaderik etxoagu egundo ezagutu gure errian... » — « Eztok orrenbestekorik, eztok orrenbestekorik; ikusiko dok ori be zelan asiko dan dirua pilatzen, guk bekiegaz ikatza ta iduria batzen doguzan lez » diño Patxo Kirten'ek. Esan ba'dau esan dau. Zori onik asko izan dau bere lagunak ezpanak anditu edo erdibitu ta agin batzuk lurrera egotziazoz izan ez dautsoezanean. Erramon Txikerrak egin dautsan begirakuneak Patxo Kirten arrikadea artu dauen txakurra lez izten dau...

.. .. .
Arrezkero urteak eta gizaldiak dira. Arako Altzibar'en amesguraria « Emen aurrean dodazan idaztiok euzkeraz al legoz !... Agertuko al da nozbaiten gaiok euzkeraz gertauta emongo dauskuzan gizonen bat ! » oraintxe ogeigarren gizaldi onen erdirantz beteko yaku zori onez. Araba-zelaietan yaiorik dogu gure Erriak betiko zorra izango dautsan semerik goragarrienetariko izango dana. Araba'n ilaginik, iltzer dago Aberriaren izkuntza zar-gozoa. Zugatzak igalirik geien arrak, naiz beste gatzek yota dagonean, il bear dauela somatzen dauenean emoten dau, naizta igaliok kazkarrak izan, eta Araba'k be bere aurrekoen, bere guraso-gurasoen izkuntzea guztiz galdu-aurretik bere igalia emon gura izan dausku, baño arauz besterakoa emon be : guri-guri ta andi-andia : OLABIDE, Araba'ren arrokizun. Gora, Araba ! eta beste igali gozo-ederrik be emongo al dauskuk, eta ire enborra yaten daragoien arra itota, berbiztuko al az ! Euzkera gozoa atzera be ire ezpanetan birloratuko al dok !...

Olabide Aba ! Ez da berau bakarrik gure Iñaki edo Eneko

Deunaren semeen artean euzkel-arloa giyau eta bikain landu dauena, zori onez. Eta izan be, or doguz beste batzuen artean Larramendi ta Mendiburu ; biotarik lenengoari beste lan batzuen artean bere « Ezina Egina » ta Euzkel-iztegia zor dautsaguz ; bigarrenari, ostera, bere « Otoitz-gai » zoragarriz ederrak. Arako « Eskuara, yalgi adi » entzunda, arrezkero, nozik-bein agertu izan dira gure Errian, an-or-emen, euzkereari aurrera bultz eragiteko gizon asmo onekoak, eta euren bultzadaxoa bakotxak emon be emon dautso, Euzkera-burdiak aurrerakadaxoa egin dau, baña ostera be geldi : itzairik ez, eta burdia ostera be geldi, edo-ta, okerrago dana, idi ta guzti atzera, burdi-idiak aurberan, eta egin-eginen be aurbereari atzea emoten dautsela, aurkituta. Burdi-idiak gelditzeko pago edo aretxen bat aurkitzen izan da bidean, baña beti geldi edo ostera be atzeraka.

Ereti negargarri onetan Abando'ko seme gurena agertzen da ta, iñondiko adorez beterik idiai akulukada ederrak emonda, burdia gora-bidean iminten dau ostera be. Zori txarrez itzai bikain ori be gazterik ilten yaku, baña ez bere Erriaren gogo lo-zorroan etzana iratzari ta zuzpeltu barik. Aren eraginari eskerrak gaztedi eder-itxaropentsua asi da lanean su ta gar, baña onenean beste zori txar ezin andiagoa datorko gure Erriari. Guda zantarra ! alangoa ! eta ostera be burdia atzeraka, ta oraingoan iñondiko abiadeagaz ; baña ereindako azia bizi da ; zarrak eta gazteak ixilean lanean daragoioe : euren artean gure Olabide'k. Guda zantarra dala-ta erbestean da, baña lanari ekin eta ekin daragoio, geroa begira, egun oberik etorriko dala-kotan. Guda-aurretik « Giza-Soña », « Kisto'ren Antz-bidea » ta « Itun Berria » umatuten dauz eta erbestean amaituko dauen lanari eldu.

Olabide euzkeldun barri dogu, ta orrexegaitik bere lana goragarriago. Ekinaren ekinez gure izkuntzea zuztarretik ikasi dau, ta euzkerea euren lenengo izkuntzea izan daben askoren irakasle egin.

Bere bizian bein ikusi izan dot nik Olabide Abea. Loiola'ko Yosulagunenean izan zan. Gizon xalo ta zuzentzazale, langille amorratu, lanari etentzaka ekitekoa. Urteak dira arrezkero, baña orraitio are arpegia gogotan dot : soñez ez garrastarik, txiki-

tsu baño, sendo, zabal, lodikote, sur-artez, arpegi-gorri; ez bape arro, edonori itz egiteko baño. Ez dakit nik aldi atan nor neban lagun, baña Olabide Abeak ezagun eta adiskide zar bai' gintzan artu ginduzan bere lantegian. Aren lan-maia Loiola'ko ibar zoragarria begira egoan leio biren bitartean. Mai-ganean idazkiña ta ainbat ingi-mutur baltzitu ta idazti batzuk. Gure alkarrekingo itzaldia laburra izan zan eta, orrezkero, alkarrerri eskua estututa agur egin geuntsan. Arrezkero gitxienez ogei ta amar bat urte izango dira.

Olabide Abeak azkenen esku artean erabili ta, zori onez, il-aurretik erbestean amaitu eban lan nagusia Itun Zarra da. Bere lan nagusi orren oarrak guztiz amaitzeke il zala ta oarrok Etxeberria Aba euzkeldun terbeak amaitu dauzalakotan nago.

Beste izkuntzetatik euzkerara iñoren bulko ta biotz-zirkinak itzulten daragoiogunok ondo oartzen dogu zelango lan-arloa burutu dauen Olabide Aba goragarriak, eta aren lana are zailago izan da. Idazti Deunak ez dira beste edozein idazti lango. Yaungoikoaren itza dabe idaztiok, eta edozein izkuntzatarra aldatu bear dirianean, idazti areiten dagoana zeatz eta egin-egianean aldatu bear dan utsen bat ez egiteko ta Elexeak itzulpen ori ontzat emoteko.

Idaztitan toki asko ulerkaitz dira ta, orrexegaitik euzkeraratzalleak beste idazti asko ta asko irakurri bear dauz ardurarik andienagaz. Bein bulkoa oratu ta ondo ulertu dauenean itzak billatu bear dira, ta itzik egokienak alan be. Yaungoikoari eskerrak, Olabide Abeak burutu eban bere lana bere gogoa Yaungoikoari barrero emon-aurretik. Zor andia dautsagu Olabide'ri ta amaikatxo eleiztarrek bere lana arinduta ikusiko dau. Olabide Abeari eskerrak. Oraindik aurrerako yaupariai ez yake yazoko gure Altzibar'tar Yon onari ta beste amaikatxori arrezkero yazo izan yakenik. Olabide'ren lanera yo ta antxe idoroko dau Idazti Deunetik bear dauen oro gertu-gertu. Orain arlo onetan euzkeldunok be beste edozein aña gara gitxienez. Gure goratsarrerik andien eta beroena be motel izango da Olabide'k irabazita dauenaren aldean, baña boako gure biotzak al dauentxoa. Gora, Olabide Aba ! Yaungoikoak ordainduko al dautzu guk gure txirotasunean ezin doguna ! Gure Erria eskar oneko yatzu.

EUZKO-GOGOIA

Revue B. Masiello Culturelle


1958

Septembre-Décembre

IRAILA-GABONIA

(Imprime en Décembre 1958)

N° 5-6



OLABIDE'ren GORATZARREZ